

2019 MARTXOAK 8 greba feminista babesteko ERAKUNDE ADIERAZPENA

Iaz, lehenengo aldiz, Euskal Herriko Mugimendu Feministak emakumeen lan etenaldi partziala deitu zuen Martxoaren 8rako, indarkeria matxistak eta desberdintasun molde ugari eragiten dituzten desorekei aurre egiteko. *Emakumeok Planto* lelopean, emakumeak zapaltzen dituen sistema kapitalista, patriarkala eta arrazista salatu zen.

Euskal Herriko emakume askok bat egin zuten greba dei horrekin eta mugarriztat jo zen, borroka eta aldarrikapen feministek ikusgarritasun handiagoa lortu ondoren Euskal Herrian.

Aurten, Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eragile sindikal, politiko eta sozialekin batera, 24 orduko greba deia luzatu du. Greba bost ardatzetan antolatzen da: zaintza, enplegua, pentsionistak, ikasleak eta kontsumoa. Greba feminista, guztion bizitzan eragiten duten esparruetan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, kontsumo eremuan, sexualitatean, arrazakerian, etab. Horregatik, grebaren bitartez, ardura kolektibotik abiatuta bizitza sostengatzeko itun sozial berri bat eskatzen dio euskal jendarteari, berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutuz. Iaz bezala, aurten ere zaintza erdigunean kokatzen da, zaintzaren berrantolaketa soziala politika publikoen zeharkako ardatza izan behar dela aldarrikatuz.

Horregatik, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren motibazioa eta proposamenarekin bat egiten dugunez, Elgetako Udalak adosten du:

1. Mugimendu feministak deitutako grebara atxikitzea, eta erakundea osatzen dugun emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea.
2. Herritarrei dei egitea mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.